

Busturialdeko eskualdeak bat egin dau euskerazko lana bideratzeko **Beharsarea.net webguneagaz**

Euskeraz egiten daben tabernari, dendari, ume zaintzaile eta bestelako lanen eskaera gero eta handiagoa da gure eskualdeko herrietan. Eskaera horrerik erantzuteko, Busturialdeko Gazteria eta Euskera zerbitzuek eta Behargintza Enplegu Zentroek Beharsarea.net webguneagaz bat egin dabe.

Beharsarea.net Bermeoko eta eskualdeko herritar guztien eskura dagoan euskerazko lana bideratzeko Interneteko webgunea da, dohainezkoa eta euskeraz egiten dan lana eskeini eta eskatzeko tresna erraz eta eraginkorra. Busturialdeko udalek eskaintzen daben zerbitzu barri honetan lan bila dabilzanak eta lana eskaintzen dabenak hartu-emonetan jartzeko bidea emoten da. Lan bila dabilzanek izena emon behar dabe atarian eta zein herritan gura daben lan egin adierazo eta beharra eskeintzen dabenek, ostera, lanaren ezaugarriak eta xehetasunak adierazoko dabez formulario baten bidez. Holan ba, alde bietako interesatuak hartu-emonetan jarri eta hortik aurrera bideratuko dabe euren lan-harremana.

Baliabide honegaz helburu bi betetzen dira: enplegua bultzatu eta euskeraren erabilera eta normalizazioaren prozesua garatu. Beharsarea zerbitzu bat da eta erabiltzaileek baldintza bi baino ez dabez bete behar: lan-baldintza duinak eskeintzea eta beharra euskeraz egitea.

Interneteko atari honetan, Beharsarea osatzen daben udalerrik eta mankomunidade bakotxak bere gunea dauka, eta bakotxaren gunera sartzen garanean, jadanik argitaratuta dagozan iragarkiak ikusi daikeguz edo barriak sortu. Ganera, hasikera-orrialdetik bertatik be aukera daukagu Beharsarea osoan jendea zein lana bilatzeko argitaratu diran azken 7 iragarkiak ikusteko.

Lanak zazpi kategoriatan sailkatuta egon arren (zaintzaileak, begiraleak, merkataritza, ostalaritza, eskola partikularrak, industria eta bestelakoak), lan-mota guztiak bideratzeko balio dau Beharsareak. Zentzu horretan, lan partzialak zein lan profesionalak eskeini eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez.

Beraz, lana euskeraz egiteko jentea behar dabenek, edota euskalduna bazara eta lana bilatu gura dabenek, orain bidea daukie Interneten: www.beharsarea.net.